

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN BALORAZIOA (2018-2022)

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

<i>Amasa-Villabonako ESEP Planean 2018-2022 epealdirako proposatutako helburuak.</i>	<i>Udalak helburu horien inguruan egiten duen balorazioa.</i>
Oria Merkatarien Elkartearekin batera euskararen normalizazioa eta sustapena helburu izango duen plangintza zehaztu	Ekintza solteak burutu dira Oria Merkatarien Elkartearekin, baina ez da plangintza baten barruan egin.
Establezimendu guztietan hizkuntzaren inguruko zerbitzuen eskaintza egin: euskara, establezimendurako balio erantsia	Galtzaundi euskara elkartearen bidez herriko establezimendu guztietan bisitak egiten dira Udalaren zerbitzua eskaintzeko. Horrez gain, bisita puntualak ere egiten dira establezimenduak irekitzean edo euskaraz ez direla kartelak jartzen atzemandakoan.
Hizkuntza paisaia euskalduntzeko ahalegin berezia egin, batez ere, establezimendua ireki aurreko bisitak eta esku-hartzeak planteatu	Azken urteetan hizkuntza paisaian urratsak eman diren arren, oraindik badago zer hobetzerik. Urtero kartel asko eskatzen dira bisitak egitean, baina gero gehiago kostatzen da hartu-eman jarraitua izatea. Urtero abenduan UEMAren zerbitzu eskaintza ere zabaltzen zaie establezimenduei.
Hizkuntza paisaia euskaraz egotea sustatu	Hirigintza sailarekin hitz egin da establezimendu berriak ireki edo eskualdatze aurretik informazioa emateko. Jaberik aldatzen ez duten establezimenduak dira zailenak esku-hartze goiztiarra izateko. Askotan, ireki ondoren joan behar izaten du Udalak bere zerbitzuak eskaintzera. Errotuluak euskaraz jartzeagatik urtero dirulaguntzak banatzen ditu Udalak.
Establezimenduetako webguneak eta sare sozialak euskaraz egotea sustatu	Webguneak euskaraz izateagatik urtero dirulaguntzak banatzen ditu Udalak.
Bezeroaren artean euskararen aldeko sentsibilizazioan eragin	Azken urteetan establezimenduetako arduradunen sentsibilizazioa landu da, eta ez hainbeste bezeroaren ikuspegia.

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN BALORAZIOA (2018-2022)

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

	UEMAren azken <i>Nirekin ere euskaraz</i> kanpaina horretara zuzenduta egon da, kanpokoak diren merkatari eta ostalariei ere euskaraz egiteko
Aurrezki-kutzak eta banketxeetan sentsibilizazioa landu	Azken urteetan Udalak UEMAren bidez Laboral Kutxarekin eta Kutxabankekin hitzarmena sinatu du euskara erabil dezaten bezeroekin eta beren paisaia linguistikoan.
“Lan praktikak euskaraz” ekimena gure herrian martxan jar daitekeen aztertu	Lanbide eskola eta enpresen arteko elkarlana 2019an hasi bazen ere, tarte horretan ez da gure herriko enpresarik egon praktikak eskainiz.
Errenta aitorpena euskaraz egiteko jendea sentsibilizatu	Urtero burutzen du Udalak <i>Errenta aitorpena euskaraz</i> egiteko kanpaina, eta urtez urte euskaraz egiten duten herritarren kopurua goraka doa.